



EGUBERRIETAKO AZOKAN SALMENTA-POSTUAK IPINTZEKO BAIMENAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK. 2025. URTEA.

I. NOIZ ETA NON EGINGO DEN

Eguberrietako azoka Independentzia kalean (Foruen plazako tartean) eta Gasteizko Urrezko Zeledonon plazan jarriko da, eta **35 salmenta-postu izango ditu gehienez**.

Azoka **2025eko abenduaren 12ko 17:00etatik 2026ko urtarrilaren 6ko 21:00etara** izango da, biak barne.

Dena dela, Gasteizko Udalak beretzat gordeko du salmenta-postuen kopurua aldatzeko eskubidea, bai eta haiek non kokatu zehaztekoa ere, salmenta-postuen eskariaren arabera eta salmenta-postuen antolakuntzaren beharrezanaren arabera.

II. MERKATURATU BEHARREKO PRODUKTUAK

ARTISAU-JATORRIKO produktuak salduko dira nagusiki.

Merkatu horren ondorioetarako, artisa-jatorriko produktutzat hartzen dira ekoizpen-jardueren, eraldaketa-jardueren edo zerbitzuak emateko jardueren ondoriozkoak, baldin eta prozesu horietan norberaren esku-hartzea erabakigarria bada industria-produktuez besteko azken produktua lortzeko.

Jatorri industrialeko produktutzat hartzen dira guztiz mekanizatutako eta/edo serie handietan egindako ekoizpenetik eratorritakoak.

III. EMATEN DIREN ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

Standa, honako hauekin: korridore estali eta beiraz itxia, barneko eta kanpoko argiztapena, eguneroko garbiketa, berogailua eta zaintza. Gerta liteke salmenta-postuen ezaugarriak, haien antolaera eta kokapena aldatzea antolakuntzaren beharrezanaren edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Saltzeko standa, gehienez 3 x 2 metrokoa, erakusmahaia jartzeko aukerarekin edo irekita. Aukeraketa hori eskabidea betetzean egingo da.

IV. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Eskaerak **2025eko urriaren 03tik 17ra arte** (biak barne) aurkeztu behar dira, modu hauetakoren batean:

- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).
- Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (HAB), Gizarte Etxeen Sarekoak.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa.
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste moduetako edozeinetan ere.

Eskabidea posta ziurtatu bidez bidaltzen bada Udalaren bulego teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea; 01008 Gasteiz—, eskatzaileak justifikatu egin



beharko du noiz bidali duen (data), postetxean bertan ezarritako zigiluaren bidez, eta, gainera, jakinarazi egin beharko dio eskabidea Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoa bidaliz (comercio@vitoria-gasteiz.org) egun berean, eta betiere eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen. Mezu elektronikoa horretan, jasota geratu beharko da eskabidea bidali dela, baita bidalketaren data ere, eta deialdiko eskabide-orriaren kopia bat ere erantsi beharko da, beteta. Osterantzean, eskabidea ezetsi egingo da.

Eskabideei buruzko informaziorik behar izanez gero, jo herritarrei argibideak emateko telefonora, 010, edo, bestela, 945161100 telefonora.

Oro har, ez da eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Kasu honetan baino ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako eskabideak: deialdi honetan ezarritako epe ofizialean jasotako eskabide-kopurua deialdian eskaintzen diren salmenta-postuen kopurua baino txikiagoa bada. Kasu horretan, eskaintzen diren salmenta-postuen guztirako kopurua betetzeko behar beste eskabide hartuko da aintzat, betiere eskabideak udal erregistroan sartu diren dataren hurrenkerari jarraituta, eta, **2025eko azaroaren 28a** (bera barne) izango delarik azken eguna.

Eskatzaile bakoitzak titularkide bakarra sartu ahal izango du salmenta-postuaren eskaeran, eta eskaera egiten duen unean nahitaez adierazi beharko du ea titularkiderik izango duen, bai eta haren izen-abizenak eta NANA ere.

Helbide bakoitzeko bi eskaera baino ez dira onartuko. Eskabide bakar bat titular edo titularkide bakoitzeko. Eskabide bakar batean baino gehiagotan ageri diren pertsona guztiak (dela titular gisa edo titularkide gisa) baztertuta geratuko dira besterik gabe.

Salmenta-postu guztietatik, bat laneratze-enpresentzat eta/edo bidezko merkataritzaren arloko enpresentzat gordeko da, eta salmenta-postu horrek ere deialdi honetan salmentarako ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko ditu. Salmenta-postu hori betetzeko eskabiderik aurkezten ez bada, gainerako eskatzaileen artean esleituko da.

Salmenta-postuaren eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdiaren oinarriak onartzea.

V. BETEKIZUNAK, AGIRIAK ETA PROZEDURA

A. ESKABIDEA EGITEKO BETEKIZUNAK ETA PROZEDURA

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

▪ Nahitaezko agiriak:

1. **Eskabide ofizialaren inprimakia.** Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak izenpetua, honako hau adieraziz: betetzen dituela salmentarako betekizunak, Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Udal Ordenantzan eta deialdi honetan ezarritakoak. Adierazpena osorik beteta aurkeztu beharko da. Adierazpenean eskatzen diren datu guztiak adierazi ezean, ezetsi egin ahal izango da.
2. Titularraren eta titularkidearen **NANaren fotokopia**, edo, Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, egoitza- eta lan-baimena, atzerritarren arloan indarrean dagoen legeriak eskatzen dituenak.
3. Pertsona juridikoen kasuan, pertsona juridikoa eratzeko eskrituren fotokopiak; eskatzailearen ahalordeak eta **identifikazio fiskaleko** txartelaren fotokopia.
4. **Merkaturatzekoak diren produktuen deskribapena** eta erakusgai jartzekoak diren gaien **3 argazki**, eta, halaber, balioespena apartatuaren barruan aurkeztutako agirien zerranda bat.

Merkatuan parte hartu nahi duten pertsonak behar bezala bete behar dute erantzukizunpeko adierazpena, eta adierazi behar dute zein kontu-zenbakitan nahi



duten sartzea itzuli behar zaien fidantza-zatia; izan ere, fidantzekin lotutako edozein ordainketa kontu-zenbaki horren bidez egingo da.

▪ **Eskabideak balioesteko/eskabideak lehenesteko dokumentazioa:**

1. **Ziurtagiri eguneratua**, organismo ofizial batek emana, ziurtatuz eskatzailea Artisanu Enpresen Erregistro Ofizial batean inskribatuta dagoela, azoka horretan saltzen dituen produktuei dagokien kategorian.
2. Dagokion erakundeak emandako **egiaztagiri ofiziala, hiru eguneko edo hortik gorako** artisautza-azoken kopurua adierazten duena, zeinean titular gisa salmenta-postua eskatzen duen pertsonak **parte hartu baitu 2023tik 2025era** bitartean. Egiaztapen hori azoka amaitu ondoren egin beharko da, eta bertan adierazi beharko da zenbat egun egin diren edo, hala badagokio, zenbat denbora igaro den. Egiaztapen ofizial hori bakarrik hartuko da kontuan, eta ez emandako fakturak eta kalez kaleko salmentarako lizentziak.
3. Titular eskatzaileak azken 3 urteetan Europar Batasunean marketinarekin, bezeroarentzako arretarekin, salmenta-puntuaren irudiarekin eta/edo artisau-ekoizpenarekin lotutako prestakuntza-ikastaroetara joan izanaren eta aprobetxatu izanaren **ziurtagiri ofiziala**. Ziurtagiri horretan, ikastaroaren guztizko ordu-kopurua jaso beharko da.
4. Titular eskatzaileak euskaraz badakiela egiaztatzen duen **titulu edo egiaztagiri ofizial** eguneratua. Helburu horietarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatutako titulu eta ziurtagiri ofizialak bakarrik hartuko dira kontuan, 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan jasotakoaren arabera (2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.).
5. **% 33tik gorako desgaitasunaren edo minusbaliotasunaren ziurtagiria**.
6. **Deskribapen-memoria** bat, salduko diren produktuei, haiek egiteko materialari edo lehengaiei eta haien elaborazio-prozesuei buruzkoa, eta, halaber, balioesteko kontuan har daitekeen beste edozein alderdiri buruzkoa.

Bere garaian Andre Maria Zuriaren Herriko Jaien 2023, 2024 eta 2025eko Azokarako edo 2023 eta 2024ko Gabonetako Azokarako eskaerak baloratzeko/lehenesteko 2., 3. eta 4. puntuetan jasotako dokumentazioa aurkeztu zuten pertsonak **ez dute dokumentu horiek berriro aurkezteko betebeharririk**, non eta ez duten dokumentazio eguneratuagoa.

Azaldutako materiala eta eskabidean aurkeztutakoa berdinak izango dira. Bestela, lizentzia baliogabetu ahal izango da, eta salmenta-postua itxi.

Baloratu beharreko dokumentazioaren berandueneko data eskabideak aurkezteko azken eguna izango da, ebaluatu ahal izateko.

B. ESKAERA FORMALIZATZEKO BERMEA

Eskaera jaso ondoren, azoka honetan parte hartu nahi duten pertsona guztiei **300,00** euroko ordainagiria emango zaie **BEHIN-BEHINEKO BERME** gisa. Ordainagiri hori **2025eko urriaren 24a baino lehen** ordaindu beharko da (egun hori barne), honako bitarteko hauen bidez:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderren edozein bulegotan, haiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.



- Herritarraren Arretarako Bulegoetan, finantza-entitateekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martingo udal bulego teknikoetan, Teodoro Dublang Margolariaren kalean, 25. zenbakian, beheko solairuan. Ordutegia: 08:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak: 010 eta 945 16 11 00.
- [Internet bidez, webgune honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/](https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/)

Behin-behineko bermeak itzuli egingo zaizkie prozeduran esleipendun suertatzen ez diren eskatzaileei, itxarote-zerrendako lehenengo 5 pertsoneri izan ezik. Azken kasu horretan, behin betiko esleipenak amaitu ondoren itzuliko da.

Esleipenduna izanez gero, berme hori BEHIN BETIKO BERMETZAT hartuko da, eta aparteko gastuez erantzuteko eta oinarri hauetan jasotako betebeharrak ez betetzeaz erantzuteko izango da.

Behin betiko bermea itzuli egingo zaie esleipendunei azoka amaitu eta aparteko gasturik ez dagoela eta betebeharrak behar bezala bete dituztela egiaztatu ondoren.

C. SALMENTA-POSTUAK ESLEITZEKO PROZEDURA ETA KOKAPENA

Standak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan (eskaeraren titularrari dagokionez):

1. Prozedura orokorra

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
1. Eskatzailearen profesionaltasuna artisautzaren salmenta ibiltarian: 2023tik 2025era bitartean 3 egun jarraituko edo gehiagoko artisautza-azoketan postu baten titular gisa parte hartzea, honela:	Gehienez 2 puntu
0,25 puntu azoka bakoitzeko, Gasteizko Udalak antolatutako artisautza-azoketan parte hartu bada.	1 puntu gehienez.
0,25 puntu azoka bakoitzeko, Gasteizko Udalak antolatu ez dituen artisautza-azoketan parte hartu bada.	1 puntu gehienez.
Gasteizko Udalak sustatutako artisautza-azoketan parte hartu izana ofizioz egiaztatu eta baloratuko da.	
2. Artisautza-enpresen erregistro ofizial batean izena ematea, eskatzaileak azokan merkaturatuko duen produkturen batekin lotutako kategorian.	Gehienez 3 puntu
3. Prestakuntza: azken 3 urteetan Europar Batasunean marketinarekin, bezeroarentzako arretarekin, salmenta puntuaren irudiarekin eta/do artisau-ekoizpenarekin lotutako prestakuntza-ikastaroetara joan izana	1 puntu gehienez.
15 hilabeteko prestakuntza.	0,25 puntu
16-30 prestakuntza-ordu	0,5 puntu
31-45 prestakuntza-ordu	0,75 puntu
46-60 prestakuntza-ordu	1 puntu.
4. Bezeroari arreta euskaraz emateko aukera	1 puntu gehienez.
B1 titulu edo ziurtagiri ofiziala	0,50 puntu
B2 titulu edo ziurtagiri ofiziala	0,75 puntu
C1 titulu edo ziurtagiri ofiziala	1 puntu.
5. Merkaturatu beharreko produktuen deskribapen-memoriaren kalitatea eta elaborazio-prozesua (piezen ekoizpena, materialak edo lehengaiak lortzea, erabilitako tresnak...)	Gehienez 5 puntu



Standa muntatzeko eta dekoratzeko proiektua (muntatu beharreko standaren azken irudiaren argazkiak, eta standaren kalitatea)	1,5 puntu gehienez.
Lantze-prozesuaren deskribapen XEHATUA, argazkiak barne (zenbat eta deskribapen handiagoa, orduan eta puntuazio handiagoa, gehienez 1,5 puntu.	
Produktuen originaltasun- eta aniztasun-proposamena (produktu eta materialen barietatea, eskusibotasuna edo eskatzaileak puntu diferentzial gisa adierazten duen beste edozein)	Gehienez 1,5 puntu
Elaborazio-, dekorazio-, packaging- eta hondakin-murrizketako materialak edo ekonomia zirkularraren kontzeptuen barruan eskatzaileak adierazitako beste edozein material aprobetxatzea.	Gehienez 0,5 puntu
6. Titularrak % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-ziurtagiria izatea.	Gehienez 0,5 puntu
GUZTIRA	12,5 PUNTU.

Eskabide kopurua dagoen salmenta-postuen kopurua baino handiagoa bada, salmenta-postuak esleitzeko, lehenik eta behin, aipatutako balorazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioa hartuko da kontuan. Berdinketarik badago, mix komertzialaren irizpidea hartuko da kontuan. Eta irizpide hori erabakigarria ez bada, zozketa bidez esleituko dira.

Esleipendunen standak non kokatuko diren zehazteko, zozketa publiko bat egingo da, **2025eko azaroaren 17an, 10:30ean**, San Martingo bulego teknikoetan.

Erreserba-zerrenda bat eratu ahal izango da baldintzak bete arren salmenta-postua betetzeko lizentziarik lortu ez duten eskabideekin.

2.Laneratze-enpresentzako prozedura

Laneratze-enpresen eskabideak ordenatzeko eta lehenesteko, eskabidea Udalaren Sarrera Erregistroan noiz sartu den hartuko da kontuan.

Horrelako enpresentzat erreserbatutako standak okupatzeko eskaerarik ez badago, gainerako eskatzaileen artean banatuko dira.

3.Standa esleitzeko prozedura

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusitako salmenta-postuak esleitzea.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, Merkataritza Zerbitzuko udal-teknikariek txosten arrazoitu bat egingo dute, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta horien arteko lehenetasuna. Azokako salmenta-postuak Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez esleituko dira, Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko Eskumenak Eskuordetzeko Erabakiaren haritik.

Behin-behineko ebazpen bat emango da salmenta-postuen baimenen esleipenarekin. Ebazpen hori emateko, esleipenaren dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta merkatuan parte hartzeko gastuak eta fidantza ordaindu ere. Dagozkion egiaztapenak eta ordainketak egin ondoren, esleipenaren behin betiko ebazpena emango da.

Salmenta-postuak esleitzeko behin betiko ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea, eta, beraren kontra, zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.



Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezten daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze-errekurtsoa espresuki edo presuntzios ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

D. EMAITZAK ARGITARATZEA ETA ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunen eta erreserban geratutakoen zerrendak **2025eko azaroaren 14tik** aurrera egongo dira eskuragarri 010 telefonoan eta udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org).

Era berean, esleipendun bakoitzaren kokapen zehatzari dagokionez, zozketaren emaitza **2025eko azaroaren 17an** argitaratuko da aipatutako udal-webgunean.

Esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute **2025eko azaroaren 19tik abenduaren 5era arte** (biak barne):

1. Gizarte Segurantzaren azken ordainagiriaren fotokopia edo titularraren eta titularkidearen gizarte-segurantzako erregimeneko altarena, dagokien erregimenekoa.
2. Erantzukizun zibileko aseguru-poliza eta haren ordainketa justifikatzen duen ordainagiria.
3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, kalez kaleko salmentari dagokion epigrafean. Gasteizen alta emanda egonez gero, ofizios egiaztatuko da.
4. Titularraren eta titularkidearen nortasun-agiriaren tamainako argazki bat.
5. Merkatuan parte hartzearen ondoriozko gastuen eta fidantzaren ordainagiriak ordaintzea. Gasteizko Udalak ofizios egiaztatuko du.

Interesdunak eskaerari uko egiten badio edo atzera egiten badu, salmenta-postu hutsak erreserba-zerrendan dauden pertsoneri esleituko zaizkie, zerrenda horretan ezarritako ordenaren arabera.

VI. ORDAINAGIRIEN ORDAINKETA

Esleipendunei, Gasteizko Udalak, V. B oinarrian aipatutako behin betiko bermeaz gain, bi ordainagiri emango dizkie, Gabonetako merkatuan parte hartzeak eragindako gastuei aurre egiteko. Honako hauek dira gastu horiek aurtun:

- **1.000,00 euroko** ordainagiria, EGITURAREN GASTUAK estaltzeko: ekitaldi honi egotz dakiokien muntaketa eta desmuntaketa, barne-standak, mantentze-lanak, garbiketa, segurtasuna, argiztapena, errotulazioa... Udalak bi kontratuak esleitu ondoren ateratzen den kostu unitarioa txikiagoa bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da.
- Bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko TASEI dagokien ordainagiri bat: **192,58 euro**, 2025erako.

Esleipendunek ordainagiri horiek ordaindu beharko dituzte honako leku eta ordainbide hauetako edozeinetan:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderren edozein bulegotan, haiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.



- Herritarraren Arretarako Bulegoetan, finantza-entitateekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martingo udal bulego teknikoetan, Teodoro Dublang Margolariaren kalean, 25. zenbakian, beheko solairuan. Ordutegia: 08:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak: 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez, Udalaren webgunean: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>.

Ordainagiri horiek **2025eko azaroaren 19tik 28ra bitartean ordaindu beharko dira** (biak barne), eta ordaintzea beharrezkoa izango da, behin betiko esleipena egitekotan.

Ezinbesteko arrazoiak direla-eta azoka osorik edo zati batean bertan behera uzten bada, itzuli egingo dira ordaindutako ordainagiri guztiak edo proportzionalak.

Halaber, saltzeko lizentzia emango bazaio, deialdia egin duen tokiko administrazioari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu eskabidea egiten duen pertsonak.

Salmenta-postuen titularrak eta titularkideak alta emanda egon beharko dute dagokien Gizarte Segurantzako araubidean, azokak irauten duen bitartean.

Ofizioz egiaztatu ahalko ditu betekizun bi horiek Gasteizko Udalak.

VII. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

V. atalean adierazitako agiriak aurkeztu eta ordainagiriak ordaindu ostean, baimenak jaso beharko dira, **2025eko abenduaren 9tik 12ra arteko** epean (biak barne), Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang, 25), 8:30etik 14:00etara.

Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta –Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan- eta egoitza-baimenaren fotokopia–. Era berean, hirugarren bati ere ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz, eta NANaren edo haren baliokidearen (Europar Batasunaz kanpokoen kasuan) fotokopia erakutsita.

VIII. SALMENTA-POSTUAK JARTZEKO BALDINTZAK

1. Bide publikoa okupatzeko lizentziak oinarri hauetan adierazitako espazioan produktua saltzeko baino ez dira izango. Hirian gainerako lekuetan, debekatuta dago kalez kaleko salmenta alde zuzeneko baimenik gabe.
2. Saltzen aritzeko baimenak esleitutako standean saltzen aritzeko dira, ez beste inon, 2025eko abenduaren 12ko 12:00etatik 2026ko urtarrilaren 6ko 21:00etara, biak barne.
3. Bide publikoan saltzen aritzeko, Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Udal Ordenantzan xedatutakoari (ALHAO, 143. zk., 2016.12.21) eta oinarri hauetako xedapenei jarraitu beharko zaie.
4. Lizentzia pertsonala izango da, eta ezinbesteko baldintza izango da eskaeraren titularrak salmenta-postua ohikotasunez betetzea, baina, une jakin batzuetan, baimendutako titularkideak ordeztu ahal izango du. Biek konpromisoa hartzen dute, halaber, salmenta-postuan izango diren bakarrak berak izango direla.
5. Esleipendunek datu hauek jarri beharko dituzte ikusgai, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:
 - Eguberrietako azokan kalez kaleko salmentan aritzeko udal baimena.
 - Helbide jakin bat, jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak bidaltzeko.



6. Salmenta-postua hornitzeko eta muntatzeko lanak **2025eko abenduaren 12ko** 10:00etatik aurrera egin ahal izango dira.
7. Ohiko salmenta-ordutegia 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara izango da, salbu:
 - Abenduaren 12an arratsaldez bakarrik irekiko da.
 - Urtarrilaren 1ean, ez da goizez zabalduko.
 - Urtarrilaren 5ean, ez da eguerdiz zabalduko.Salmenta-ordutegi hori errespetatu egin behar da, eta postuak irekita egon behar dira ordutegi horretan.
8. Eguberrietako azoka 2026ko urtarrilaren 6an itxiko da, 21:00etan. Gaueko zaintza-ordutegia egunero bezala mantenduko da, eta, beraz, itxita geratuko da urtarrilaren 6ko 21:00etatik 2026ko urtarrilaren 7ko 10:00etara. Ordutegia unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera aldatu ahal izango da.
9. Salmenta-postu bakoitzeko potentzia 600 w-ra mugatuko da gehienez.
10. Salmenta-postuen esleipendunek probagela erabili nahi izanez gero, ardura hartu beharko dute hura ondo erabiltzeko, eta, gainera, erabiltzen den aldi bakoitzean, ondoren desinfektatzeko.
11. Gasteizko Udalak beretzat gordeko du ekitaldiaren kokalekua aldatzeko eskubidea arrazoi teknikoengatik edo ezinbesteagatik, behar besteko aurretiaz jakinarazita eskatzaileei. Hitzarmenaren banaketa eta antolamendua indarrean dagoen araudiaren mende egongo da, azokak irauten duen artean.
12. **Berariaz debekatzen da:**
 - Imitaziozko bitxigintza fineko produktuak, erlojuak, elektronikako gaiak eta ikus-entzunezko beste euskarri batzuk, elikagaiak, mota guztietako edariak, liburuak, kaseteak, bideo-zintak eta diskoak, jantziak eta oinetakoak eta izaera industrialeko beste edozein produktu saltzea.
 - Piercing eta tatuaje iraunkorrak egitea.
 - Zolatutako eremuan edozein ibilgailu-mota egotea, dagokion baimenari ez datzekion ordutegi eta baldintzetan.
 - Postuetako megafonia indibiduala.
 - Kalez kaleko salmentarako egokitutako esparru itxian erretzea.
 - Esleitutako postuaren kanpoko egituratik zintzilikatuta edo postuaren azaleratik kanpo produktuak erakustea, bai eta esleipendunaren izen komertziala duen errotulua ikustea zailtzen duten produktuak jartzea ere.
 - Jendea igarotzen den lekuetan eta jendeari arreta emateko ordutegian ibiltzea zaildu dezakeen edozein objektu egotea (aulkiak, eskailerak, kutxak, salgaiak, etab.).
 - Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak zein bestelakoak betetzea. **Kosmetikako eta higieneko artisau-produktuak salgai jartzeko, ezinbestekoa izango da Produktu kosmetikoak arautzen dituen otsailaren 23ko 85/2018 Errege Dekretuan jasotako etiketatze-araudia betetzea.**
13. Segurtasun-arrazoiak direla eta, standen hornitzaileari aukera eman behar zaie standaren barruan su-itxalgailu bat jartzeko, hala badagokio.

IX. HUTSEGITE ZEHAGARRIAK ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

Dagozkien zaintza- eta kontrol-eginkizunak betez, udal-agintariak produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, eta beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango diete saltzaileei, oinarri hauetako xedapenak, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzan ezarritakoak eta jarduerari eta salgaiei aplikatu beharreko



gainerako lege-araudian ezarritakoak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Gasteizko Udalak, zein entitateari eskuordetu dizkion beharrezko kontrol-ekintzak, entitate horrek egindako txostenak hartu ahal izango ditu oinarritzat.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zehatzailea izapidetzeari ekingo zaio ofizioz. Lizentzia eman zuen organoak izango du espedientea hasteko eta, hala badagokio, egokitzen jotako ebazpena onartzeko eskumena.

Aplikatzekoak diren alorreko xedapenek ezarritakoa gorabehera, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzak honela sailkatzen ditu arau-hausteak: arinak, larriak eta oso larriak.

- o Arau-hauste arina (34.1 art.) dela joko da oinarri hauetan eta udal ordenantzan jasota dauden xedapenak ez betetze hutsa, nahiz eta ez izan garrantzi ekonomiko zuzenik, ez eta kontsumitzaileentzat kalterik ere, non eta ez diren jotzen larritzat edo oso larritzat. Adibidez, salmenta-postuan baimenik ez duten pertsonak egotea, azokaren ordutegia ez betetzea, kanpoko espazioa salgai edo bestelako objektuekin okupatzea, erreklamazio-orririk ez izatea edo udal-baimena jendaurrean ez jartzea.

Arau-hauste horiek 35.1 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

- o Arau-hauste larriak jotzen dira arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea eta Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren 34.2 artikuluan adierazitakoak.

Arau-hauste horiek 35.2 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

- o Arau-hauste oso larritzat jotzen dira arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo delarik, eta halaber Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren 34.3 artikuluan adierazitakoak.

Arau-hauste horiek 35.3 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

X. DATUAK BABESTEIA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Pertsona horiek, zeinek bere datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo aurkatu nahi izanez gero, Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Bulegoetako batera jo beharko dute.